

ANTI BARBIAK

HIRU DELIZIA

Mercè Anguera

Bego Montorioaren itzulpena

Desclée De Brouwer

ANTI BARBIAK

Hamar urte dituzte. Kalekumeak dira, eta bizi diren auzoan denetik dago: etxe zaharrak eta etxe berriak, parkea, azoka, liburutegia, anbulatorioa... Auzoko ikastetxera doaz, eta, aurten lehen aldiz, eurak bakarrik, 5. mailan daude eta.

MARTA

Ile gorrixka du, lasto lehorren antzekoa (harro eta tente ateratzen zaio burutik, benetan lastozkoa bailitzan, nahiz eta saiatzen den nola edo hala lotuta eusten). Betaurrekoak ditu, eta zer?; norbera den bezalakoa da. Garaia da, baldar samarra eta oso-oso berritsua... Familiarekin bizi da: gurasoak, amama, Helena (hamabost urteko ahizpa nagusia) eta Andres (neba txikia, umetxo bat).



MARTA, ELI ETA NAO: ANTIBARBIAK DENAK BATENTZAT ETA BAT DENENTZAT

ELI

Txiki samarra da (kakanarrua esaten diote).
Iluna du ilea -ez luzea ez motza-, eta sudurra,
txikia eta oreztaz betea. Izugarri azkarra da,
eta ikastea maite du. Martak eta Naok ez dute
ondo ulertzen nola den posible hori; primeran
datorkie, alabaina, hura ondoan edukitzea,
etxeko lanak egiteko orduan. Egun batzuetan
amarekin (hobe esanda, umezainarekin) eta
beste batzuetan aitarekin bizia da.



NAO

Ile luzea eta liso-lisoa du, aurpegi borobila, gelako
oinik txikiak eta txinatar-begiak. Ondo ematen
diote, nolanahi ere, horixe baita bera, txinatarra.
Txinan adoptatu zuten gurasoek, eta, behar bada
horregatik, nahikotxo (gehiegi) mimatzen dute;
Martak eta Elik esan ohi diote hori ez dela ona,
baina hark ez die jaramonik egiten. Oso Antibarbi
berezia da, izan ere, barbi bat ere baita, neurri
batean.

1

Goiz arrunt horietako batean hasi zen dena. Inork deitu beharrik gabe itzartu nintzen. Normalean, nagituta eta umore txarrez jaikitzen naiz, baina, egun hartan, ez. Zergatik? Ba, Elik esan ohi duen bezala: «Zerbait ez dakizunean, galdetu». Sarritan egoten dira nik ez dakizkidan gauzak, eta, orduan, galdetu egiten dut. Hainbesteko praktika dut horretan ze, neure buruari ere egiten dizkiot galderak. «Nao, gaur larunbata dun?» itaundu nion neure buruari goiz hartan, larunbatetan umore onez jaikitzen naizelako (ez dago eskolarik). Hauxe izan zen erantzuna: «Ez, osteguna dun. Eta gaztelerazko azterketa zaukanagu!» Berri txarra, baina ez zidan inolako eraginik sortu; kontrara, barre karkaila eta dena egin nuen.

Leihora hurbildu nintzen. Astiro eragin nion pertsianaren sokari, zaratarik ez egiteko. Leihotik, argi hits apala sartu zen. Zerua ilun zegoen, hodei gris borobilak arin mugitzen ziren, eta beheko teilatuak bustita zeuden. Gaueko euriaren aztarna.

Logelako leihotik ez dut kalea ikusten, baina ikusten dena askoz hobea da: etxadiko barnealdea, hots, patioak eta teilatuak, balkoiak, galeriak eta era guztietako leihoak. Katuena da patiorik hoberena, trastez eta katutzar miaulari liskarzalez mukurua dagoelako. Goiz hartan, ez zen katuen arrastorik: ez dute euria gogoko. Behar bada, jai eguna izango zen. Etxean, jaiekin ospatzen dugu dena. Urtemugak ospatzen ditugu, eta norberaren santuaren eguna (Done Nao ez dugu ospatzen, horren egunik ez dagoelako), Eguberriak, Erregeen eguna... Unean uneko gauzak ere ospatu ohi ditugu; esaterako, aitagibotea kendu zuenean.

Baina, aipatzen ari natzaizuen egunean, ez genuen ospatzeko ezer berezirik. Lastima!

Leioa zabaldu nuen, baina gutxi, amak ez didalako uzten. Arriskutsua dela dio. Tira, leioa igoz gero da arriskutsua, baina nik sudurra baino ez dut ateratzen. Eta sudurra ateratzea arriskutsua da leioa ixtean sudurra barrura sartzea ahazten baduzu, baina ni, arretagabea izanik ere, ez naiz hainbestearainokoa; hortaz, arazorik ez. Lasai asko atera nuen sudurra.

Freskoa eta hezea zen airea. Oso usain onekoa. Gustukoa dut euria egitea; denak egiten du dirdira. Tira, zaparrada arin pasatzen denean dut gogoko, neguko euri hits likitsa, gogorik gabe baina etengabe jausten den hori ez baitzait batere gustatzen. Hodeiak elkarrengandik

aldentzen hasiak ziren, eta zero urdin-urdina uzten zuten agerian; ez zen neguko zerua: udaberriko zerua zen!

—Ama, ama! —egin nuen oihu—. Uste dut udaberria heldu dela!

Amak atea zabaldu zuen.

—Hara, jaikita zaude? Musu bat —xuxurlatu zuen, eta, bat-batean itzarrita—: zer egiten duzu leihoan? Ez al dizut mila aldiz esan...?

—Zatoz, ama, begira!

Amak pixka bat gehiago zabaldu zuen leihoa, eta, ni besaburuetatik helduta, leiho ertzean bermatu, eta sakon hartu zuen arnasa. Mundu guztiari gustatzen zaio euriaren ondoren geratzen den aire garbia.

Katuen patioan, bazter batean botata zegoen plastiko laranja bat mugitu egin zen. Lehendabizi, apur bat, eta gero, gehixeago. Azpitik, hanka gris bat atera zen, eta gero, mutur oso-oso txiki bat. Arratoi bat? Katuak han ez zirenez...

Amak «ixo!» esan zuen, ezpainetan atzamar bat jartzen zuela. Plastikoaren azpian zegoenak entzun egin zion, eta atzera ere ezkutatu zen. Amak xuxurlaka esan zidan:

—Ea ateratzen den. Arratoia bada, kexa egingo diot komunitateko lehendakariari! Bai nazka!

Ez zen arratoi nazkagarri bat. Guztiz kontrakoa, katakume bihurri bat zen. Arretaz atera zuen burua plastiko zikinaren azpitik, toki guztietara begira, gure leihora izan ezik. Guk arnasarik ere ez genuen hartzen. Apurka-apurka, konfiantza hartu zuen katakumeak: guztiz azaleratu zen, nagiak atera zituen, aharrausia egin zuen ahoa zabal-zabalik, hiru pauso aurrera eman eta, plaf!, putzu batean sartu zituen hankak. Bizkarra harrotu zuen, eta, halako grinaz ekin zion bere burua miazkatzeari ze, ama eta biok barrez hasi ginen. Orduan, katakumeak burua altxatu zuen, aurpegitxoaren erdian zabaltzen ziren begi urdin handiez begiratu zigun, eta arrapaladan egin zuen alde plastiko azpira. Izugarri polita zen!

Zain egon ginen denboratxo batez, baina ez zen berriro atera. Amak hasperen egin eta leihoa itxi zuen.

—Segi, hotza dago eta jantzi egin behar dugu...

Katuari begira, berandutu egin zitzaigun. Nik hortzak garbitzen nituen bitartean, amak oharra idatzi zidan agendan, marmarka: «Azken aldia da, azkena. Zer pentsatu behar du Teresak? Tentela naizela... Tentela naiz eta...». Baina niri ez zidan poza kenduko ez berandu heltzeak ez eta oharrak. Irten aurretik, esan nuen:

—Ez dut anoraka jantziko, udaberria heldu da eta.

Baina amak erantzun egin zidan:

—Nao, udaberria martxoaren 20an hasten da, eta bi

aste falta dira oraindik. Aurreratuta zabilta! Anoraka jantzi behar duzu, eta, gainera, guardasola hartu. Irratian esan dute euria izango dela egun osoan.

Poza zapuzteko modukoa izan zitekeen, baina ez.

Igogailuan jaitsi nintzen. Kalea oso ilun zegoen. Hodeiek berriro estaltzen zuten zerua. Autoek piztuta zeuzkaten argiak, gautzeko puntuan bailegoen. Eli eta Marta zain nituen, biak Martaren amamaren guardasol beltz itzelaren azpian, eta haserre, nire erruz berandu helduko ginelako; beti bezala, haien ustez. Urrutitik ere igartzen zitzaien mutur okerra. Faris jauna, kioskoko, batetik bestera zebilen, egunkariak eta aldizkariak plastikoz babesten, euriak busti ez zitzaizkion.

—Euria! Euria! Hotza! Negu gogorra! —zioen, umore txarturik—. Eta zuek, segi eskolara! Bizkor! Eskolara!

Bidean gindoazela, goian behean hasi zen euria. Ez ginen berandu heldu, baina blai eginda amaitu nuen, uretarako bota berriekin ezin dudalako ia korrikarik egin. Denei gustatzen zaizkie, gardenak direlako eta galtzerdiak ikus daitezkeelako; horrela, oinak busti zaizkizun ala ez ikus dezakezu. Hori dute alde ona. Baina laban egiten dute, eta, korrika eginez gero, jausi egiten zara, eta txarragoa da hori, ze, oinak kontrolpean eta siku eduki arren, ipurdia bustita daukazu.

Egunhura aspergarrisamarra izan zen. Berogailuaren ondoan jesarri behar izan nuen, bakarrik, lehortzeko. Arreta galdu nuen katakume grisa gogora ekarrita, han patioan, bakarrik, plastikoaren azpian, eta Teresak errieta eman zidan. Azterketa zaila izan zen, eta ezin izan genuen jolastokira irten euria ari zuelako... Baina ezerk ez zidan poza zapuztu. Gauza onak ere egon ziren: postrerako, flana (sei jan nituen, neurea eta beste bost gehiago, inori ez zaiolako gustatzen, neuri bakarrik).

Azkenean, gogoratu egin nuen dutxako zauriak sendatzen ez dakit zenbat aste pasatu ondoren Maria Isabelek berriro egin ahal zuela taekwondo, eta, beraz, baita guk ere.

Horregatik egon nintzen hain pozik egun osoan!

